

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?

Banaketa eta komunikazio kanalak gure enpresaren komunikazio-bidea dira, merkatuko segmentuetara iristeko eta gure balio-proposamena helarazteko.

Kanalak bi eratara sailka daitezke: zuzeneko kanalak eta zeharkako kanalak. Guk biak erabiltzen ditugu:

Batetik, kanalen konbinazio zuzena aurkitzea behar da arrakasta lortzeko. Horretarako, gure kasuan kanal propioak erabili ahal ditugu eta elkartutako kanalen bidez ere bezeroengana iritsi dezakegu, hau da, bien konbinazioa edo nahasketa erabiliko dugu.

Kanal propioak izango lirateke sare sozial bidez, hitzaldien bidez edo parte hartu feria ezberdinetan ezagutzera emateko. Horrela, publizitatea egingo dugu foruetan edo kartelen bidez leku estrategikoetan ipiniz.

Bestetik, zeharkako kanalak, zerbitzua hirugarren batzuen bidez iristen denean bezeroarengana da. Gure kasuan, hortz-kliniken eta laborategien bidez gertatzen da hori. Kasu horietan, hasierako kontaktua ez da zuzenean bezeroarekin gertatzen, bitartekari profesional baten bidez baizik. Kasu horietan, klinikak lotura gisa jotzen du pazientearen eta gure zerbitzuaren artean, konfiantza eta zilegitasuna emanez.